

2011ko urtarilaren 27ko mitina

EGUN ON GUZTIOI:

Kalea berreskuratu behar dugu; aldarrikapenak egiteko eta borroka demokratikorako leku izatea lortu behar dugu berriro. Jendez bete behar da, gure jendeak bete behar du, elkartasun politikak exigitzeko. Hori da gure aukera, eta badakigu lan gogorra dela. Badakigu bide bakarra dagoela behar ditugun aldaketak lortzeko: gizartea mobilizatzea. Krisi honen zergatiak arrazoia ematen digu, baina halere kapitalak, benetako botereak, inposatzen dizkigu bere errezetak. Gaur inoiz baino arrazoi gehiago dugu kalera atera eta mobilizazio demokratikoa egiteko. Horregatik, GO honek eta zuen parte hartzeak balio handia du, batez ere lan militanteak, ezartzen diguten informazio eta eztabaida gabezia gainditzeko balio baitu.

LANGABEZIA, GERO ETA HANDIAGOA. Langabezia ez da lehentasuna. Gehitzen denean "harritu" egiten dira. Langabezia aitzakia perfektua da, gizartea diziplinatzeko tresna bat. Joan den astean New York Times egunkariak zioen Estatu Batuetan egora jasangaitza dela: 20 hilabete daramate %9tik gorako langabezia tasarekin! Jasangaitza! Langabezia agenda politikotik desagertu egin da, eta agintariek hartzen dituzten erabakiekin enpleguak suntsitzen dira; enplegu mordo bat. Berdin zaie.

ZER ARI DA GERTATZEN? Kapitala eta enpresa handiak soldatak eta eskubide sozialak ebasten ari dira, eta klase politikoaren zati batek hori babesten du. Horixe da egoera. Eskubide sozial eta laboralek azken 35 urteetan jasan duten erasorik gogorrena. Eta horregatik erresistentzia izan behar da agenda sindikalaren ardatza. Soldatek, eskubide sozialek... gertatu denarekin ez daukate inongo zerikusirik, baina gutxi batzuren diru-goseak egindako txikizioa ordainarazi nahi diete. Horregatik atera gara kalera.

ZERGATIA: Ez dute honetaz hitz egin nahi: kapitala metatzea, aberastasuna banatzeko era injustua, espekulazioa, kontu publikoen deskapitalizazioa... Orain gaitz guztiak ZOR PUBLIKOari, defizit publikoari leporatzen zaizkio. Baina arazoa ez da zor publikoa, inondik ere. Errua zor pribatuak du, banketxeen zorrak, hauek espekulazioa finantzatzeko atzerrian kredituak hartu baitzituzten; orain balantzeak manipulatzeko dituzte. Badituzte lagunak politikan, eta zor hori diru publikoz ordaintzea erabaki dute. Soldatak eta eskubide sozialak murriztuta ordaindu nahi dituzte finantza-sektoreko zuloak. Dirua ematen diete banketxeei, baina hauek ez dute krediturik ematen; berdin zaie. Espainiako Bankuko gobernadoreak, oso sozialdemokrata bera, asmo bakarra du, gure eskubideak murriztea. Banketxeek gobernuetan kokatzen ditu bere peoiak eta alderdi politiko handiak kontrolpean ditu, komeni zaien politika egin dezaten.

ERREFORMEN HELBURUA. Erreforma laboralak eta negoziazio kolektiboarenak helburu bat du, soldatak jaistea, kaleratzea erraztu eta merkatzea, gure defentsa kolektiboa ahultzea... Pentsioen erreformarekin, berriz, banketxeek kudeatzen dituzten funts pribatuen negozioa handitu nahi dute. Bai, banketxeen negozioa hedatu nahi dute, jendeak dirua bere funtsetan sartzea, lukurreriazko komisiorekin dirua irabazteko... Banketxeek eta enpresa handiek ezin dute etekin normalekin bizi.

PRIBILEGIATUAK PRIMERAN DAUDE. PETROLEOaren sektoreko enpresek izugarrizko marginak dituzte, Europakoak baino %25 handiagoak, eta gasolinaren prezioa gobernuaren baimenarekin igotzen digute. Gobernuak konpainia **ELEKTRIKO**en tarifak %35 garestitzeko baimena eman du; sektore honetan sartu da eraikuntzako kapital espekulatiboaren zati handi bat. Banketxeek pentsio-funtsetako **KOMISIO**tan (dakigula) 1.000 milioitik gora irabazten dute urtean. **IBEX 35** indizeko enpresek 2010ean aurreko urtean baino %15 gehiago irabazi dute. Gobernuak diru publikoz saneatzen ditu aurrezki-kutxak, gero prezio barregarritan pribatizatze aldera. Enpresei opariak ematen dizkiete, zabor-kontratuak egiteko Gizarte-Segurantzako kuotak murrizten dituzte. Hauek krisiaren kontrako txertoa daukate. Kapitala metatzen jarraitzen dute.

ETA GEHIAGO NAHI DUTE. Kapitalak ikusten du klase politiko hau prest dagoela eskatzen zaiona egiteko. Egin dezagun oraindik egiteke dagoena! Botere gehiago lor dezagun! Kapitalak nominan jarri du klase politikoaren zati handi bat, lobby lana egin diezaion.

BAI, ALDERDIOK LAGUNDU EGITEN DUTE. "Arduraz" jokutzen dutela diote. Baina aipatzen duten 'ardura' hori interes hutsa besterik ez da. Eraitza: eskuineko politika bakarrik dago, aldebakarrekoa eta muga jakinik gabea.

GUK KARGU HARTZEN DIEGU ordezkari politikoei. Herritarrek hautatu dituzte, ez banketxeetako akziodunek. Hau gogoratu beharra dago. PSOEk, EAJk, UPNk, CiUk eta PPK, alderdi bakar baten moduan, beren politikatik oreka soziala ezabatu dute. Ez dute hortan sinesten; edo, bestela planteatuz gero, zertan sinesten dute? Zertan ez datoz bat? Ez dakigu. Baina badakigu eskubide laboral eta sozialak hankapean hartzen dituen politikaren laguntzaile direla.

ARISTOKRAZIA BERRIA. Bai, mendekoen tratua ematen digute, ez herritarrei zor zaiena. Areago, esan dute berdin zaiela zer egiten dugun. A ze demokrazia! Botoa emateko unera mugatu dute. Krisi kapitalista ez ezik, krisi demokratikoa pairatzen ari gara: Hauteskundeetan agintzen ez dutenei ematen diegu botoa. Jendeak badaki hori, eta horren jakitun den jendeak kezkatu egiten ditu.

'SOZIALDEMOKRAZIA' AIPAGAI. Ez dago benetako sozialdemokraziarik. Hauteskundeetarako marka soil bat da. Sozialdemokraziaren liderrak gainbehera ideologiko baten erantzukizuna dute. Beren erakundeak neoliberalismora eraman dituzte... Eta kapitalak saria ematen die: "Funtzio publiko"tik irtendakoan itzelezko soldaten truke kontratatzen dituzte.

ALTERNATIBARIK EZ OMEN DAGO. Estatuko batez besteko pentsioa hileko 780 eurotan dago. Sistema publikoaren defentsa omen da zenbateko hori jaistea. Eta ez da hala. Pentsio batek bizimodu duina egiteko aukera eman behar du, eta kasu gehiegitan hori ez da posible. Hau erreforma latza da: Pentsioa lortzeko eskubidera iristeko gaingitu ezineko oztopoak, batik bat emakumeentzat; zenbatekoaren jaitsiera; erretiro adinaren atzerapena...

ALTERNATIBARIK BADA, BAINA BORONDATE POLITIKORIK EZ. Zein da errezeta? Onartutako erreformak atzera botatzea, enpresentzako hobariak kentzea, kotizazio sozialak igotzea. Zergatik finantzatzen dira zerga bidez AHTa eta armada, baina pentsioak ez? Pentsioak zerga bidez ere finantza daitezela aldarrikatzen dugu. Erreforma fiskal bat aldarrikatzen dugu, progresibitatea berreskuratzeko eta iruzurrari jazartzeko. Kutxa publikoak deskapitalizatu egin dituzte, zergarik ordaindu nahi ez dutenen interesak defendituz.

LASTER KOTIZAZIOAK JAITSIKO DIZKIETE. Horixe eskatzen dio patronalak ZPri: murrizketak eginda, kotizazio sozialak 5 puntu jaisteko. Ikusi dute gobernuak esanekoak direla, eta ahal den guztia lortu nahi dute. Hurrena osasuneko kopagoa, etorriko da. Hori exigitzen dio CiUk ZPri... Batak bestearen atzetik, erabakiok batuta pobretze orokorra eta ekonomiaren pribatizazio izugarria dakarte. **NABARMENA DA.** Alderdi horiek ez dute elkartasunaren bidetik jo nahi. Obeditu eta gezurretan ari dira: "Bide bakarra murriztea da".

"OSO KEZKATUTA DAUDE". Zergatik? Kezkatuta daude, bai baitakite jende arrunta konturatzen dela eurek ez dutela agintzen, beste norbaitek erabakitakoa gauzatzen dutelako, gobernuan "enkarguz" daudelako alegia. Jende arruntak ikusi du hori, eta kezkatuta daude. Kontzientzia hori garrantzitsua da... hurrengo pausoa gizartearen mobilizazioa baita. Ez dugu etsiko indiferentziaren kontrako borroka irabazi arte. Euren apustua indibidualismoa da; geurea, kontrakoa.

ALDERDIEI EXIGITZEN DIEGU erreforma honi ezetz esateko. Kontrako botoa da aukera bakarra. Euskal langile-klaseak beste erabakirik ez du onartuko. Zapaterok ez dauka gehiengorik, eta erreforma laboralean bezala, Parlamentuko bozketa da bere kezka bakarra. Ez dugu nahi hau berriro gertatzerik; politikariek aurka egitea nahi dugu.

CCOO eta UGT. Batzuk kontu hau sindikatuen arteko arazo bihurtu nahi dute; baina ez da halakorik. Guk arazoa gobernuarekin eta kapitalarekin daukagu. Hortik aurrera, CCOO eta UGTri kritika gogorra egin behar diegu. Laguntzen ari dira langileak desmobilizatzen. CCOO eta UGTren programazioa desmobilizazioa da. Madrilgoa horretarako eratu zen: Denbora igarotze hutsarekin sinadura sindikala emango diote Gobernuaren proposamenari. Non daude lerro gorriak? ZPK euren ahulezia estrukturala ezagutzen du, eta hortaz baliatzen da. Antzerki batean parte hartzen dute, eta anestesistarena egiten dute. Gizartea lokartzeko anestesia.

AMAITZEKO, OROITU nahi ditut Euskal Herritik CIGeko lagunak, Galizan ere gaur greba orokorra deitu baitute. Elkartasunezko goraintziak ere greba orokorra aurrera ateratzeko mobilizatu eta lanean jardun diren sindikatu eta gizarte-mugimenduentzat (pentsiodunak, immigranteak, emakumeak, gazteak...), hots, deialdiarekin bat egin duten guztientzat. Euskal Herrian eta gure mugetatik harago. Politikan eragina izan dezan gure ereduak indarrak batu behar ditu, mugimendu sindikalean eta gizartean. Gure aldarrikapenei eutsi egingo diegu.

KALEA borrokarako gune demokratikoa da, eta horregatik jarraituko du mugimendu sindikalaren lehentasun izaten, betidanik izan den moduan.

GORA GREBA OROKORRA

GORA EUSKAL HERRIKO LANGILERIA